

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ibilera baten oinatzak



Amaia Serrano Mariezkurrena

Duela hogeit hamar urte argitaratu zuen Andoni Egañak *Pausoa noiz luzatu* eleberria, Joseba Jaka beka lortu ostean. Izenburu iradokitzailekoa, gaiaren aldetik ezberdina, eta idazmoldeari begira ere, landua.

Nabari zaio Egañari ahozko hizkerako maisutasuna, pertsonaien ahotan jarritako esapideek borobiltzen baitute eleberri honen alderdirik literarioena (egitura narratiboa, narratzaile aldaketak, narrazio- eta fikzio-denborak, eta abar). Gertaera ilunei jarritako umoreak eta ironiak errealtatearekiko begirada zorrotza duen idazlea irudikatzen garamatza. Behatzailea ez ezik, inork begiratu ez duen lekuetara eta inork ez bezala so egiten duena.

Militar batzuek Jakan egindako Errepublikaren aldeko altxamendua (1930) eta 1960ko hamarkadan Zarautzen sortutako Lanbide Heziketako ikastetxeko errealtatea dira eleberriko bi plano nagusiak. Batetik bestera jauzika, narrazio lineala guztiz puskatuta dago. Denbora-salto horiez gain, narratzaile ezberdinen ahotsek ematen dute gizarte hautsi baten berri. Zati horiek bilduz doaz, haria galdu gabe eta pertsonaia bakoitza bere tokian kokatuaz.


Ez da inondik inora eleberri manikeoa, taxu askotariko pertsonaiek betetzen baitute. Bada, ordea, pertsonaia guztiak lotzen dituen bat: Frai Kandido, Zarauzko eskolako zuzendaria. Izaera konplexukoa, koherentzia bizi nahi duena, baina errealtateak kontraesanean jarri duena. Frai Kandidoren iragana ez ezagutzeak dakarren misterioari lotzen zaizkio haren inguruko esamesak, nahiz eta ezjakintasun

Pausoa noiz luzatu

ANDONI EGAÑA

Alberdania, 1998

Andoni Egaña Makazaga bertsolaria eta idazlea (Zarautz 1961).



horrek hauspotzen dituen iritziek talka egiten duten haren benetako iraganarekin. Ezkutuko kontuak gorabehera, erabakiak hartzeaz gogetarazten duen eleberri honetan, irudipena dut Frai Kandidoren apaizteko hautua ez dela hain garbi geratzen.

Literaturari eginiko keinuak ere badira. Egoeren osagarri sinboliko bihurtuz, egoki txertatzen dira narrazioan zenbait olerki eta obren aipamenak; esaterako, Machado, Lorca edo Celaren *La familia de Pascual Duarte* (1942). Alabaina, eleberri polifoniko honetan zenbait ahots faltan izan ditut, ezen gizonezkoen munduak erakusten zaizkigu bertan (militarrena eta apaizena), bakanak izanik emakumezkoenak; bestelako oihartzunak ere ezin aurkitu ibili naiz, batez ere idazle edota errepublikazale euskaldunena. Ezin eskatu dena, ordea, eleberri bati; baina honetan irakurleak badu non gozatu. ■